2023

DIRULAGUNTZA LABURPENA

Arabako hirikoak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko - Europar Batasunak finantzatutako deialdia – NextGenerationEU

KULTURA ARABA

KulturAraba Bulegoa

LABURPENA

Arabako hirikoak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza- NextGenerationEU 2023

NOREN TZAT?

Egoitza soziala eta fiskala Araban duten erakundeak:

- Kultura-sektoreko **profesionalak eta enpresak.**
  (1. modalitatea).
- **Kultura-elkarteak.**
  (2. modalitatea)
- **Entitate eta organismo publikoak.**
  (3. modalitatea)

ZEIN PROGRAME TARAKO?

- **Arabako landa-ingurunean 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean** egiten diren kultura-proiektuak eta -jarduerak.

- **Programa bakarra erakunde eskatzaile bakoitzeko**, **diruz lagundu daitekeen aurrekontua gutxienez 31.250 eurokoa izanik.**

Ez dira sartzen nekazaritza- eta artisautza-azokak, gastronomia-, osasun- edo kirol-lehiaketak eta -jarduerak, txangoak edo ikasketa-bidaiak. eta sexuagatik diskriminatzen duten jarduerak edo proiektuak.



LABURPENA

Arabako hirikoak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza- NextGenerationEU 2023

ZER ESKAINI?



- **Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 80ra arte** (gainerako % 20a baliabide propioen bidez eta/edo beste finantzaketa-iturri pribatu batzuen bidez lortutakoa).

- **2 ordainketa** (% 80raino hasieran, % 20 justifikatu ondoren)

Eman beharreko gutxieneko diru-laguntza 25.000,00 eurokoa da, eta gehienekoa 40.000,00 eurokoa.

EPEAK

ESKAERAK: maiatzaren 30etik ekainaren 12ra arte. (10 egun baliodun)

JUSTIFIKAPENA:

- Gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu behar dira agiriak, diruz lagundutako proiektua amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. **Edonola ere, aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 15a izango da.**

LABURPENA

Arabako hirikoak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza- NextGenerationEU 2023

DIRUZ LAGUNDU AHAL DIREN GASTUAK

- 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean deialdi honetan egindako jardueren ondoriozko gastuak.
- Zeharkako gastuak: diruz lagun daitezkeen gastuen aurrekontuaren % 10, justifikatu beharrik gabe (3. modalitatean izan ezik)
- BEZ-a (betiere erakundeak ezin badu berreskuratu).

DIRUZ LAGUNDU EZIN DIREN GASTUAK

- Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
- Ordezkaritzaren, protokoloaren, agasajoaren eta antzekoen gastuak.
- Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak eskuratzetik eratorritakoak.
- Aisialdiko eta/edo entretenimenduko jarduerek, jolas- eta jai-jarduerek, kirol-jarduerek eta izaera eta esentzia bereziki kulturala ez duten jarduerek eragindako gastuak.
- Soldatapeko langileen gastuak (3. modalitatea)
- Erakundearen mantentze-, kudeaketa- eta funtzionamendu-gastu orokorrak (3. modalitatea).
- Oinarrietan adierazitako helburuekin bat ez datorren beste edozein.

LABURPENA Arabako hirikoak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza- NextGenerationEU 2023

Gehienez 3 proiektu aukeratuko dira, balorazio onena jaso dutenak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

(Gehienez 100 puntu)

- **Proposamenaren egokitzapena deialdira.**
- **Kalitatea eta eragin kulturala Arabako eskaintza kulturalaren testuinguruan.**
- **Izaera berritzailea** (originaltasuna, aurreko edizioekiko berrikuntzak)
- **Kalitate teknikoa:** oinarriak, plangintza, baliabideak, komunikazioa eta hedapena.
- **Jarraipena eta ebaluazioa.**
- **Programaren lurralde-eremua**
- **Programaren lurralde-eremua** (proposatutako jardueren %80 gutxienez landa-ingurunean egin beharko dira; 5.000 biztanletik beherako udalerri eta udalerrietan).
- **Euskararen erabilera eta berdintasuna** sustatzen duten ekintzak.

Bi faseen artean gutxienez 60 puntuko balorazioa lortzen duten eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

OHIKO GALDERAK

IRAKURRI BETI ARRETAZ OINARRIAK XEHETASUN GUZTIAK EZAGUTZEKO!

Zalantzak dituzu oraindik? Jarri gurekin harremanetan!

kulturaraba@araba.eus
945 181980

Zein da diruz lagun daitekeen aurrekontu osoa?

Diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontua zure proiektu/programaren aurrekontu osotik diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak aterata ateratzen den zenbatekoa da.

Araban proiektu bat egin nahi badut, baina nire elkartea ez badago Araban kokatua edo izena emanda, deialdi honetara aurkez naiteke?

Ez. Baldintza gisa, kultura-erakunde eskatzaileek Arabako Lurralde Historikoan izena emanda egon behar dute eskaera egiten den unean.

Non eta nola aurkeztu behar dut nire eskabidea?

- Profesional autonomoa naiz: aurrez aurre (edozein erregistro ofizialetan) edo elektronikoki AFAren egoitzan.
- Kultur elkartea edo kultur sektoreko enpresa naiz: elektronikoki egoitzan. EGOITZA: https://egoitza.araba.eus/eu/-/subvenciones-ampliar-y-diversificar-oferta-cultural-en-areas-no-urbanas

OHIKO GALDERAK

IRAKURRI BETI ARRETAZ OINARRIAK XEHETASUN GUZTIAK EZAGUTZEKO!

Zalantzak dituzu oraindik? Jarri gurekin harremanetan!

kulturaraba@araba.eus
945 181980

Enpresa izan behar al dut nire burua aurkeztu ahal izateko?

Ez, profesional autonomoak, kultura-elkarteak, toki-erakundeak (udalak) edo beste erakunde publiko batzuk ere aurkez daitezke.

Zer hartzen da landa-eremutzat edo hiriaz kanpoko eremutzat?

30.000 biztanletik beherako biztanleria eta 100 biztanletik beherako dentsitatea Km2 bakoitzeko. Definiziorik ezean, udalerriak mugatuko du eremu hori.

Eskabideak aurkezteko azken egunetik aurrera, zenbat denbora behar da ebazpena jakiteko?

6 hilabete, baina lehenbailehen konpontzen saiatzen gara.

OHIKO GALDERAK

IRAKURRI BETI ARRETAZ OINARRIAK XEHETASUN GUZTIAK EZAGUTZEKO!

Zalantzak dituzu oraindik? Jarri gurekin harremanetan!

kulturaraba@araba.eus
945 181980

Zer jarduera mota aurkez daitezke?

- Ekitaldi edo ikuskizun artistikoak edo kulturalak, jaialdiak, erakusketak eta antzeko beste kultura-jarduera batzuk, a) diziplina anitzeko arte-jarduerak eta kultura eta arteak zientziarekin eta/edo jakintza tradizionalekin lotzen dituztenak barne.

- Eragile anitzeko parte-hartzearen bidez, esperimentazioa, ikerketa eta berrikuntza kulturala bultzatzen dituzten eta lurraldean zehaztasun praktiko bat duten proiektuak.

- Ondare immateriala, kulturarekin eta praktika garaikideekin lotuta.

- Arte- eta kultura-arloko hezkuntza-, transferentzia- eta bitartekotza-jarduerak, teknologia berrien erabilera barne.

Zure proiektua kulturala bada eta landa-ingurunean egin nahi baduzu, eskaera bidaltzera animatzen zaitugu. Eskaera guztiak balorazio-batzorde batean sartuko dira, eta batzorde horrek erabakiko du. Gainera, balorazio-irizpideei erreparatzera eta zuen proposamena irizpideetara egokitzera animatzen zaituztegu.

OHIKO GALDERAK

IRAKURRI BETI ARRETAZ OINARRIAK XEHETASUN GUZTIAK EZAGUTZEKO!

Zalantzak dituzu oraindik? Jarri gurekin harremanetan!

kulturaraba@araba.eus
945 181980

Diru-laguntza hau beste batzuekin bateragarria al da proiektu bera egiteko?

Bai, deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak, estatukoak, nazioarteko erakundeetakoak, baita Arabako Foru Aldundikoak ere, baldin eta laguntzek ez badituzte gastu-partida berak finantzatzen eta, betiere, diruz lagun daitekeen aurrekontu osoa gainditzen ez bada.

Aurkeztutako proiektuari emandako dirulaguntza publikoen guztizkoak ezin izango du aurrekontuaren % 80 gainditu.

Gainera, erakunde onuradunak Aldundiari jakinarazi beharko dio helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu edo eskatu dituen.

Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

KULTUR ARABA

KulturAraba Bulegoa

araba álava
foru aldundia diputación foral

